

AUZOEN KONTSEILUAREN 2011-05-05EKO BATZARRAREN AKTA.

2011ko maiatzaren 5ean, 20:00ean, Udaletxeko pleno aretoan, auzoen kontseilua bildu zen.

Bertaratuak:

Buruak: Jose Garaizabal

Kideak: Jose Angel Sagasta, Roberto Mendibil, Modesto Mugika, Markos Arroita, Gotzone Irigoien, Josi Bernas, Luis M^a Garro, Patxi Landaburu, Juan M^a Lersundi, Balen Jauregi, Aitor Alberdi eta Alaitz Aranzabal.

Idazkari lanetan: Agurtzane Arbulu.

GAI ZERRENDIA:

1.- AUZOETARA GARRAIOA.

Gai zerrendako lehenengo puntuan, Alkateak Bitakako ordezkariari eman zion hitza. Ordezkariak azaldu zuen Auzoetarako garraioa egitasmoa aztertzeke jarraitu dituzten pausuak eta Bitakak egiten dituen proposamenak. Azaldu zuen baita, orain Udaletxeari dagokiola erabakitzea zerbitzuaren antolaketa.

2.- URA FALTA DIREN AUZOETARA.

Josek azaldu zuen lehenengo fasea Berriotik hasiko dela, dirua dagoenean. Lehenengo goitik hasi behar da, ondoren beherantz egiteko. Plano bat ere banatu zuen, ura nondik nora eraman behar den ikusteko.

3.- EGURRA ATERATZEKO TASA.

Atal honetan, Berriozabaletakoek proposamen bat egin zuten eta Jose Garaizabalek bertako auzo alkateari esan zion azaltzeko.

Roberto Mendibilek hartu zuen hitza eta esan zuen beraien proposamena hau zela: hostoz abalak sartzen direnean, punu tasa kentzea.

Karlos Ibarrondok esan zuen pinua kez duela baliorik, et ahoi bultzatzeko ondo legokeela. Proposatzen du pistak egitea, auzoko bideak hondatu ez daitezen.

Gaineratu zuen Aldundian egon dela horretarako aukera, hau da, subentzioak, baina orain ezetz.

Josek ere esan zueni deia moduan ondo dagoela.

Karlosek esan zuen Memaiatik beheko bariantera pista berria egiteko asmoa dagoela.

4.- ESKARI ETA GALDERAK

Jose Garaizabalek aditzera eman zuen 5 argi solar ipintzeko erabakia hartuta dagoela. Esan zuen teknikariak datozenean auzo alkateei deituko diela non ipini zehazteko.

Markos Arroitak esan zuen Estatutuetoako 12. atalean "..., eta egoki deritzon, aldatu ahal izango du alkateak, aldatzeko motiboak arrazoituz..." dionean, "eta arrazoiak dagokion auzoan argitaratuko dira" jarri beharko litzatekeela.

Auzo alkate guztiek ados agertu ziren aldaketa txiki horrekin.

Baserrietako farolak direla eta, esan zuen Udalak ematen duen diru-laguntza ateratzerakoan, Udalak ez duela argi-igoera kontuan izan.

Mendrakako ordezkariak esan zuen Santo Tomás jaietan mahai bi erosi zirela eta Udala kez ditu mahaiak ordaindu.

Gazetako ordezkariak esan zuen Gazetako jaietakoa kobretako dagoela.

Iguriako ordezkariak esan zuen Iguriako bigarren sarreran arazoa egon dela kontenedoreen kamioiarekin, egun batean teilatua jo eta zati bat apurtu zuelako.

Leizko ordezkariak esan zuen San Pete inguruko argia fundiduta dagoela eta bonbila aldatzeak omeni dela.

Berriozabaletako auzo-alkateak esan zuen kristelen kontenedora ipintzeko dagoela.

Lekeriketakoak keta Aldapekoak esan zuen eurena uzoetan ere.

Leizko ordezkariak esan zuen aste buruetan jendeak juergak egiten dituela eta galdetu zuen ea zer konponbide eman daitekeen.

Lekeriketakoak bizikleta eta motorrak ixteko tokia esan zela Txoko taberna ondoan zeozer egingo zela, eta oraindik ez da ezer egin.

Iguriakoak galdetu zuen ea Naturbideari buruz zer dakigun.

Josek erantzun zion Aldapetik hasten dela eta lehenengo ibilbidea zein izango den.

Azkenik, Urkizuarango ordezkariak esan zuen Orain 13 urte etorri iren moduan, Santixagotan aleman talde bat datorrela eta euren zelaietan akanpaduko dutela. Aurrekoan etorri irenean, Udalak Kiroldegiko dutxak erabiltzen utzi zieten, eta galdetu du ea oraingoan pegarik badagoen.

Jose Garaizabalek erantzun zion eskabidea egiteko.

Eta beste barik, bilera 21:45an amaitu zen.